

## BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

### Borobilak



XDZ

#### I

Gaurkoan gauza borobiletaz kantatu nahi nizueke, unibertsoan zintzilik daude handienak erortzeke, planeta gorri, eguzki gorri edota ilargi bete, forma bera ei daukate ondo ezagutu arte. (bis)  
Zeren denborak ikuspegia guztiz aldatu lezake, zuek mundua borobila den horren ziur al zaudete?

#### III

Urrats batean jolas zelaitik gudu zelaira igarota: alde batean gazte koadrila ta bestean ertzain tropa, gazteenganantz jaurti dituzte ehunka gomazko pilota, berdin zaie nora bota, kalteak ez die inporta. (bis)  
Horrexegatik egiten dugu uniformedunen kontra, pilotakada hoiien atzean joko zikina dago ta.

#### V

Guztiok geunden agintarien erantzunari begira, Varela eta Ares agertu ziren ohi duten neurriara, hainbat lekukok esandakoa tinko zuten erretira, sokari tira ta tira eurek nahi zuten tokira. (bis)  
Haien gezurrak hitz finak hitz fin eta dizdirak dizdira, pilotakadak bezain borobil eta mingarriak dira.

#### II

Telazko poltsa baten gordetzen gendun kanika dozena, tenis pilota berde-berdea teilatura joan zena, auzokoaren baloi berria zurieta-zurieta...  
Jolastokian barrena, zenbat ume, hainbat dema. (bis).  
Irriak eman ta bueltan jaso hortxe laburtzen zen dena; jolastea da inondik ere ekintza borobila.

#### IV

Hilabetean marra gorriak bi aldiz zituzten pasa, mutil bat larri utziz Gasteizen ireki zen trumoi kaxa, gero heldu zen Athletizale baten azkenengo arnasa, ertzainen pilota jasa ulertzea ez da erraza. (bis)  
Nor da konorte bako gazte bat porraz jotzeko kapaza?  
Okerrena da beraientzako horixe dela jolasa.

#### VI

Agintariak berba lauekin egindako teatroa, gezur borobil baten dizdira, pilotaren zartakoa...  
Denak batuta sor dezaketen mina da sekulakoa.  
Aurki dezagun gakoa eraldaketarako. (bis)  
Zeren nahiz eta planeta izan esferak bezalakoa, oraindik ere gizarte hau da piramide formakoa.



**DOINUA:** Gregario edo laguntzaile naiz.



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.